

# Ezkongabeen, pixaren eta askatasunaren gaineko zergak

ERROMA, K. A. 357. Manlio Capitolino kontsulak *Vicesima Libertatis* zerga ezarri zuen; esklabo bat askatzean esklabo horren balioaren hogeiren bat ordaindu behar zen. Tito Livioaren (K.a. 59-17) hitzetan: “Kontsul horrek ez zuen ezer aipagarriarik egin, aurrekaririk gabeko berrikuntza bat izan ezik: esklabotzatik askatzearen gaineko ehuneko bosteko zerga proposatu zuen. Senatariak, legeak funts eskaseko altxorrari sarrera oparoak ekarriko zizkionez, onartu egin zuten”. Bide batez, diru sarrera gehigarriak patrikaratzeaz gain, Manlioren asmoa askatutako esklaboen (libertoen) kopurua mugatzea zen, Erroman zerbitzuen eta lurren eskaerak gora egin ez zezan.

Tito Livioaren esanetan erabakiak ez zuen aurrekaririk, bai ordea ondorengo mordoa. Batzuk bitxi askoak, gainera. *Vectigal urinae* edo pixaren gaineko zerga Vespasianok kobratu zuen lehenengoz; kontuan hartu behar da gernua ez zela hondakin hutsa, besteak beste detergente modura erabiltzen zuten salgaia baizik. *Aes Uxorium* delakoak, aldiz, adin jakin batera ezkongabe iristen ziren gizonezkoak zergapetzen zituen; gaur egun ere ezkontzeak zerga-onurak dakartza.

*Portorium* merkatariek produktuak saldu ahal izateko ordaintzen zuten zerga zen, hirietan sartzean, portueta-ristean eta mugak zeharkatzean kobratzen zieten.



Gustave Boulangerren *Esklabo azoka* (1882). Esklaboen askatasuna lortzeko %5eko BEZ modukoa ezarri zuten antzinako Erroman.

erabiltzen baitzen. Gaur egun bezala, salbuetsitako gutxieneko bat zegoen, Augustoren garaian 100.000 sestertziokoa.

*Centesima rerum venalium* edo *Vectigal rerum venalium* zerga ere Augustok ezarritakoa da. Lurren, etxebizitzaren, animalien... salmenta-prezioaren %1 biltzen zuten, nagusiki gastu militarrei aurre egiteko. Esklaboak salgai bereziak ziren, nonbait, eta prezioaren %4 ordaindu behar zen.

Erroman justizia ez zen unibertsala, ezta doakoa ere. Auziaren edukia eta prozesuaren kostua balioztatzen zuten, eta kopuruaren berrogeirena *Quadragesima Litium* zergaren bidez jasotzen zuten.

Benjamin Franklinek ederki esan zuen: “Ez dago ezer ziurrik, heriotza eta zergak izan ezik”. ■

*Vectigal Rotarium* ibilgailuen –kasu honetan, gurdien– zirkulazioaren gaineko zerga zen. Galtzaden erabileraz zergapetzen zuten, egungo autobideetako ordainsariak bezala, eta bildutakoa galtzada horien mantentze lanetara bideratzen zuten.

Oinordetzaren gaineko *Vicesima Hereditatum* zerga Augusto enperadoreak sortu zuen. Diru kutxa publikoan hildakoak utzitako ondarearen %5 sartu behar zen, hileta gastuak kenduta, hiletengatik bildutakoa legioetako betaranoei erretiroa ordaintzeko

## Arrastoak

### Duela 14.000 urteko dentista

S. BENAZZI



VILLABRUNAN (Italia iparraldean) 1988an aurkitutako gizaki baten arrastoak –zehazki, beheko hirugarren hagina– aztertu du berriki Boloniako eta Ferrarako unibertsitateetako ikerlari talde batek. *Scientific Reports* aldizkarian argitaratu dutenez, haginak duen txantxarra nahita tratatu zuten; ehun infektatua garbitzeko punta mikrolitiko bat erabili zuten.

Orain arte, hortzeriaren tratamenduen frogarik zaharrenak Neolitikokoak ziren (duela 9.000-7.000 urtekoak). Baina Villabrunako gizakia duela 14.000 urte datatu dute eta, beraz, Goi Paleolitoaren amaierakoa da txantxarra sendatzeko ahalegina. Horrenbestez, odontologiaren lehen mugarrak gutxienez 5.000 urteko jautzia egin du iraganera. ■